

NOT IN MY TOWN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Parte hartzeko baldintzak

Bideoan ageri diren pertsonen % 90 mailari dagokion adin tartekoak izango dira (11-14 urte / 14 urtetik gorakoak).

www.ametxgazteria.net web orrian, Gaztetxokoan eta Gazteentzako Informazio Bulegoan izena emateko eskuragarri dagoen orria bete behar dute partaide guztiek. Eremu guztiak bete behar dira, ezinbestean eta zuzen. Partaideren batek horrela egin ezean, lehiaketatik kapon uzteko eskubidea izango dute antolatzaileek. Izena emateko epea: abenduaren 4ra arte. Ezarrita dagoen epearen barruan aurkezten ez diren bideo guztiak automatikoki geratuko dira lehiaketatik kanpo.

Bideoen aurkezpena

Bost minututik beherako iraupena duen bideoa aurkeztuko dute lehiaketan parte hartu nahi dutenek. Hizkuntzarik erabiliz gero, euskara, gaztelania edota ingelesa izango dira.

Bideoa jatorrizkoa izango da, ez-komertziala, telebistan eman gabea, beste ezein lehiaketatan saritu gabea eta, nola ez, hedagarria. Horretarako, bertan parte hartzen duten pertsonak (hala banaka nola taldeka) arte-elementuak erabili ahalko dituzte, musika, irudiak edo egoki irizten dieten beste edozein, kasurako.

Bideoak formatu digitalean entregatuko dira Gaztetxokoan edo Gazteentzako Informazio Bulegoan.

Komenigarria da –derrigorrezkoa izan ez arren- bideoak 16:9 formatuan egitea. Bideoen emanaldia abenduaren 15ean izango da, Not in My Town Gauero izeneko galan, iluntzeko 20:00etan.

Sariak

11-14 urte	-Epaimahaiaren saria	200€ dendariak elkartearen baleetan
	-Ikusleen saria	140€ dendariak elkartearen baleetan
	(webgunean egingo den bozketaren bidez)	

+14 urte	- Epaimahaiaren saria	360€ dendariak elkartearen baleetan
	- Ikusleen saria	280€ dendariak elkartearen baleetan
	(webgunean egingo den bozketaren bidez)	

Sari banaketa 2018ko abenduaren 15ean izango da. Sariak banatzeko galan bideoak ikusiko dira, eta orduan jakinaraziko da zeintzuk diren irabazleak.

Ezaugarri jakinen bat dela kausa, bideoetako batek/batzuek aipamen berezia merezi duela/dutela uste izanez gero, antolatzaileek sari bereziak emateko eskubidea edukiko dute.

Epaimahaia

Honakoak izango dira epaimahaikideak:

- Ametxgazteriaren ordezkari bat.
- Ikastetxeen ordezkari bat.
- Zine zuzendaria edo arlo horretan aditua den pertsona bat.

Ikusleen saria

www.ametxgazteria.net web orrian egingo den bozketaren bidez erabakiko da ikusleen sariaren irabazlea nor den. Izena ematen den egunaren biharamunetik aurrera ikusgarri egongo dira bideoak, eta abenduaren 14eko gaueko 23:00ak bitartean boto gehien jasotzen duena izango da irabazlea.

Harremanetarako

Zalantzaren bat izanez gero, edo informazio osagarria eskatzeko, harremanetan jar zaitezke antolatzaileekin:

Ametx gazteria

gazteinfo@amtx.net

Twitter: @amtxgazteria